Beasaingo Udala

# BEASAINGO UDALAREN ETA BEASAINGO LAU KATU ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, KOLONIA FELINOEN KUDEAKETA ETIKORAKO

# CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE BEASAIN Y LA ASOCIACIÓN LAU KATU DE BEASAIN PARA LA GESTIÓN ÉTICA DE COLONIAS FELINAS

Beasainen 2025eko apirilaren 10

Beasain a 10 de abril de 2025

## BILDURIK

Alde batetik, LEIRE ARTOLA UGALDE andrea Beasaingo Udalaren (IFK, P2002100B). Egintza honetarako ahalmena, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21,1b) artikuluak ematen dio.

Beste alde batetik, ANE ZUDAIRE FERNANDEZ andrea “LAU KATU BEASAIN, KATUEN LAGUNEN ELKARTEA”ren ordezkari gisa (IFK, G75171777. Erregistro zenbakia, AS/G/20875/2017), lehendakaria den heinean, Batzar Orokorrak 2024-03-01ean izendatu zuelako egintza honetarako ahalmena, Estatutuen 16. artikuluak ematen dio.

## REUNIDOS

De una parte, Dª. LEIRE ARTOLA UGALDE alcaldesa – presidenta del Ayuntamiento de Beasain (CIF, P2002100B). Se encuentra facultada para este acto en virtud de lo señalado en el artículo 21,1b) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local.

De otra parte, Dª ANE ZUDAIRE FERNANDEZ en representación de “LAU KATU BEASAIN, KATUEN LAGUNEN ELKARTEA” por (CIF, G75171777. Nº de registro, AS/G/20875/2017), en calidad de Presidenta fue designada en la Junta General celebrada 01-03-2024 y se encuentra facultada para este acto en virtud de lo señalado en el artículo 16 de los Estatutos.

## AURREKARIAK

**I.-** Etxeko animaliak babesteko ekainaren 30eko 9/2022 Legearen 28. artikuluak honako hau ezartzen du:

*Hiri-kolonia felinoak.*

*1. – Udalak arduratuko dira hiriko felino-koloniak kudeatzeaz; kudeaketa hori animaliak harrapatzeko, esterilizatzeko, markatzeko eta itzultzeko HEMI metodoa aplikatuz egingo da. Itzulitako katuek identifikazio-marka bat izango dute antzuak direla identifikatzeko.*

## ANTECEDENTES

**I.-** El artículo 28 de la Ley 9/2022, de 30 de junio, de Protección de los Animales Domésticos, establece que:

*Colonias felinas urbanas.*

*1.– Los ayuntamientos serán los responsables de la gestión de colonias felinas urbanas; dicha gestión se realizará a través de la aplicación del método CER –captura, esterilización, marcaje y retorno– de los animales. Los gatos devueltos*

ESKU59041f3e-d0f9-4125-87e9-5b92b38b3b82

*llevarán una marca identificativa para identificarlos como estériles.*

*2. – Udalek, ahal dela, metodo hau aplikatzen zaien animalia guztiak zaintzeaz, identifikazio-markatzeaz eta erroldatzeaz arduratzen diren pertsona eta elkarteekin lankidetzan aritzea sustatuko dute. Inola ere ezingo dira kolonian erroldatu identifikazio indibiduala duten eta AIEOn erregistratuta dauden animaliak; animalia horiek abandonatutzat joko dira, titularrari dagokion zehapena aparte utzi gabe.*

*2.– Los ayuntamientos promoverán preferentemente la colaboración con las personas y asociaciones encargadas del cuidado, marcado identificativo y censo de todos los animales a los que se les aplique este método. En ningún caso podrán censarse en la colonia aquellos animales que ya dispongan de identificación individual y estén registrados en el REGIA, los cuales tendrán la consideración de animales abandonados, sin perjuicio de la sanción que le corresponda al titular.*

*3. – Felino-kolonia kudeatzen duen erakundeak edo elkarteak lankidetza-hitzarmen bat sinatuko du dagokion udalarekin, eta bertan sinatutakoaren ondoriozko erantzukizuna bere gain hartuko du.*

*3.– La entidad o asociación que gestione la colonia felina suscribirá un convenio de colaboración con el ayuntamiento correspondiente y asumirá la responsabilidad que pudiera derivarse de lo suscrito en el mismo.*

**II.-** Animalien eskubideak eta ongizatea babesteko martxoaren 28ko 7/2023 Legearen 39. artikuluak honako hau ezartzen du:

**II.-** El artículo 39 de la Ley 7/2023, de 28 de marzo, de protección de los derechos y el bienestar de los animales establece que:

*Kolonia felinoak*

*Colonias felinas*

*Autonomia-erkidegoko legerian bestelako aurreikuspenik ez dagoenez, eta indarrean dagoen legeriak ezarritako eskumen-esparrua errespetatuz, toki-erakundeei dagokie erkidegoko katuak kudeatzea, eta, horretarako, Felino-koloniak Kudeatzeko Programak garatu beharko dituzte.*

*En ausencia de otra previsión en la legislación autonómica, y respetando el ámbito competencial establecido por la legislación vigente, corresponde a las entidades locales la gestión de los gatos comunitarios, a cuyos efectos deberán desarrollar Programas de Gestión de Colonias Felinas.*

*Udalerriak leku egokia eta egokitua izan beharko du, behar izanez gero, katu komunitarioak koloniatik aldi baterako kentzeko.*

*El municipio deberá contar con un lugar adecuado con espacio suficiente y acondicionado para la retirada temporal de su colonia de los gatos comunitarios en caso de necesidad.*

**III.-** Boluntarioek bakarrik osaturiko LAU KATU BEASAIN-en (KATUEN LAGUNEN

**III.-** El objeto social de LAU KATU BEASAIN- KATUEN LAGUNEN ELKARTEA (integrada únicamente por

ESKU59041f3e-d0f9-4125-87e9-5b92b38b3b82

ELKARTEA) helburu soziala, Estatutuen 2. artikuluaren arabera ondorengoa da:

(a) Katuen kolonien kontrol progresiboa, batez ere Beasaingo udalerrian.
(b) Elkargune bat izatea eta kontaktua katuen eskubideen eta ongizatearen alde borrokatzeko.
(c) Beasaingo kolonia felinoen kudeaketa egin eta koordinatzea, HEI metodoa edo TNR metodoaren bidez (harrapaketa-esterilizazioa eta itzulera) eta Kale-katuen koloniak kudeatzeko proiektu hau aplikatu nahi duten beste erakunde, administrazio edo pertsona batzuei aholkuak ematea.
(d) Herritarrak gaiaren inguruan sentsibilizatzea, esterilizaziokoak eta animaliak abandonatzeak dakartzan ondorio kaltegarriak, adopzio arduratsua sustatuz
(e) Katuen zaintza, mantenua (ura eta pentsua) eta jarraipena.
(f) Elkarrekiko laguntza eta elkartasuna, beste elkarte, plataforma eta erakunde batzuekin lankidetzan eta partikularrak kaleko katuak babesteko jarduera guztietan, betiere helburuak badituzte, Elkartekoekin bat datozenak.

**IV.-** Udalak badaki hiri-kolonia felinoak ere errealitate direla Beasaingo udalerrian, eta aipatutako Legearen Zioen Azalpenean adierazitakoarekin bat etorriz, animalien hiri-populazioen kudeaketa egokia egin nahi du, helburu hauekin:

- Jaberik gabeko felinoen kontrola, metodo etikoen bidez egonkortzeko eta pixkanaka murrizteko, idealki bide publikotik desagertu arte.
- Osasun publikoa zaintzea.
- Animalien eta pertsonen arteko bizikidetza erraztea.

voluntarios), según el artículo 2 de los Estatutos, es:

(a) Control progresivo de las colonias de gatos, especialmente en el municipio de Beasain.
(b) Tener un punto de encuentro y contacto para luchar por los derechos y el bienestar de los gatos.
(c) Realizar y coordinar la gestión de las colonias felinas de Beasain, mediante el método CER o TNR (captura, esterilización y retorno) y asesorar a otras entidades, administraciones o personas interesadas en aplicar este proyecto de gestión de colonias de gatos callejeros.
(d) Sensibilizar a la población sobre los efectos negativos de la esterilización y abandono de animales, fomentando la adopción responsable.
(e) Vigilancia, mantenimiento (agua y pienso) y seguimiento de gatos.
(f) El apoyo y la solidaridad recíprocos, en colaboración con otras asociaciones, plataformas e instituciones y en todas las actividades de protección de los gatos callejeros por particulares con fines coincidentes con los de la Asociación.

**IV.-** El Ayuntamiento es consciente de que las colonias urbanas felinas son también una realidad en el municipio de Beasain y, de acuerdo con lo señalado en la Exposición de Motivos de la citada Ley, pretende realizar una adecuada gestión de las poblaciones urbanas de animales con los siguientes objetivos:

- Control de la población felina sin propietario para su estabilización y reducción gradual mediante métodos éticos, idealmente hasta su desaparición de la vía pública
- Vigilancia de la salud pública.
- Facilitar la convivencia entre animales y personas.

ESKU59041f3e-d0f9-4125-87e9-5b92b38b3b82

- Ahal den neurrian, interbentzioaren xede diren animaliei edozein sufrimendu saihestea.
- Herritarren sentsibilitatea handitzea, gizarte moderno baten jokabide humanitarioagoak eta berezkoagoak sustatuko dituen hezkuntzarako oinarriak ezartzea.
- Koloniak kudeatzeko eta katuak biltzeko protokoloak indarrean dauden araudira eta jarraibideetara egokitzea, eta udalerriaren baldintzetara egokitzea.

- Evitar, en la medida de lo posible, cualquier tipo de sufrimiento a los animales objeto de la intervención.
- Aumentar la sensibilidad de la ciudadanía, sentar las bases para una educación que fomente comportamientos más humanitarios y propios de una sociedad moderna.
- Adaptar los protocolos de gestión de colonias y de recogida de gatos a la normativa y directrices vigentes y adecuarlos a las circunstancias del municipio.

**V.-** Hori dela eta, Telleria garajea elkartearen materiala biltegiratzeko erabiltzeko baimena eman da eta 0270.481.311.00.01 partida izenduna esleitu da udal-aurrekontuan, Lau Katu Elkartearen alde, eta honako helburu honekin: “*animaliak bildu eta zaindu*”. Kopurua: 12.000 €, 2025 urtean zehar egindako jarduerentzako.

**V.-** Por ello, se ha autorizado el uso del garaje Telleria para el almacenamiento de material de la asociación y se ha consignado en el presupuesto municipal la partida nominativa 0270.481.311.00.01, a favor de la Asociación Lau Katu, con el siguiente fin: “*recogida y custodia de animales”.* Importe: 12.000 €, para las actividades realizadas durante el año 2025.

Ondorioz, bi alderdiek elkarri kontratatzeko eta betebeharrak hartzeko gaitasuna aitortu diote, eta elkarlan hitzarmen hau honako klausula hauen arabera idaztea adostu dute:

En consecuencia, ambas partes se reconocen capacidad para contratar y obligarse, acordando la redacción del presente Convenio de Colaboración con arreglo a las siguientes.

ESTIPULAZIOAK

ESTIPULACIONES

**Lehenik**. Hitzarmen honen xedea da esku hartzen duten alderdien eskubideak eta betebeharrak arautzea, hiri-kolonia felinoen ongizatea lortzeko, gizabanako guztiak esterilizatuz, HEI metodoa aplikatuz (harrapaketa, esterilizazioa eta itzulera), albaitaritza-arreta emanez eta behar duten katuei adopzioa ematen saiatuz.

**Primero.** El presente Convenio tiene por objeto regular los derechos y obligaciones de las partes intervinientes para lograr el bienestar de las colonias urbanas felinas, esterilizando a todos los individuos, aplicando el método CER (captura, esterilización y retorno), prestando atención veterinaria y procurando la adopción a los gatos necesitados.

**Bigarren**. LAU KATU BEASAIN-ek (KATUEN LAGUNEN ELKARTEA), ondorengo ekintzak egiteko konpromisoak hartzen ditu, bere boluntarioek duten prestasunen arabera:

**Segundo**. LAU KATU BEASAIN-ASOCIACIÓN DE AMIGOS DE LOS GATOS, se compromete a realizar las siguientes acciones en función de la disponibilidad de su voluntariado:

ESKU59041f3e-d0f9-4125-87e9-5b92b38b3b82

Jarduerari buruzkoak:

- Proiektuaren jarduera-ildoei buruzko prestakuntzan parte hartzea, kolonia felinoen kudeaketa etikorako udal-plana egiteko.

- Kolonien detekzioan, erroldan eta jarraipenean laguntzea, eta eskatzen duenean eskatzen duen informazioa Udalari bidaltzea.

- Katu guztiak atzitzeko, esterilizatzeko eta koloniara itzultzeko HEI programa aplikatzea, bereziki honako hauen bidez:
a) Harrapatzea: Metodo etikoen bidez harrapatzea aleak, koloniaren kontrol-jarduketen barruan.
b) Esterilizazioa: Osasun-egoera orokorra ebaluatzea, zikiratzea eta aleen belarria markatzea, muturra moztuta. Hori guztia albaitari kliniko elkargokideen bidez, albaitaritza-berme onekin eta Elkarteak jarduera animalien ongizateari buruzko irizpideei jarraiki hitzartzen duen zentroetan.
c) Itzulera: katua jatorrizko koloniara itzultzea.

- Animalien elikaduraz arduratu ohi diren pertsonak aurkitzea, proiektuan inplikatuz, zuzendu beharreko ohituren berri emanez eta katuak elikatzeko udal-baimena lortzeko eskatuz. Baimen hori erabilera pertsonal eta besteren ezineko txartel izendun bat izango da, Beasaingo Udalak emana. Txartel horretan egiaztatuko da bere eramailea Beasaingo kolonia felino jakin baten zaintzailea dela eta katuak elikatzeko eta zaintzeko bere zereginak HEI metodoari eta koloniaren kudeaketa integralari lotuta daudela. Txartel hori aldian-aldian berritu beharko da, eta katuak elikatu bitartean eraman beharko da. Horretarako, elkarteak Udalari bidaliko dio kolonia zaintzaile gisa duen egoera erregularizatu beharko luketen

En relación a la actividad:

- Participar en la formación sobre las líneas de actuación del proyecto, para la elaboración del plan municipal de gestión ética de colonias felinas.

- Colaborar en la detección, censo y seguimiento de las colonias, remitiendo al Ayuntamiento la información que requiera cuando la solicite.

- Aplicar el programa CER de captura, esterilización y retorno a la colonia de todos los gatos, en particular mediante:
a) Captura: Atrapar a los ejemplares mediante métodos éticos, dentro de las actuaciones de control de la colonia.
b) Esterilización: Evaluar el estado de salud general, castrar y marcar la oreja de los ejemplares mediante un corte en su punta. Todo ello mediante veterinarios clínicos colegiados, con buenas garantías veterinarias y en aquellos centros con los que la Asociación pacte la actividad siguiendo criterios de bienestar animal.
c) Retorno: devolución del gato a su colonia de origen.

- Localizar las personas que habitualmente se ocupan de la alimentación de los animales, implicándoles en el proyecto, informándoles sobre los hábitos que deban ser corregidos e instándoles a obtener la correspondiente autorización municipal para la alimentación de los gatos. Dicha autorización consistirá en un carné nominativo de uso personal e intransferible emitido por el Ayuntamiento de Beasain que acreditará que su portador es cuidador de una determinada colonia felina en Beasain y que sus tareas de alimentación y cuidado de los gatos está vinculada al método CER y la gestión integral de la colonia. Dicho carné deberá renovarse periódicamente y portarse durante la

ESKU59041f3e-d0f9-4125-87e9-5b92b38b3b82

pertsonen zerrenda, bere ustez, pertsona horiek prestatu eta jardunbide egokien konpromisoa sinatu ondoren.

alimentación de los gatos. A este fin la Asociación remitirá al Ayuntamiento un listado de personas que, a su juicio y tras la formación de las mismas y la firma de un compromiso de buenas prácticas, debiera regularizar su situación como cuidador de colonia.

- Katuak elikatzea, ezarritako jarraibideen arabera. Oro har, katuentzako pentsua eta katuentzako elikagai hezea aukeratuko dira (azken hori beti ordu berean eta soberakinak beti kenduta), ur freskoarekin lagunduta. Nolanahi ere, modu diskretuan eta errutinaz elikatuko da, bizilagunei eta hondakinik sortu gabe, eta koloniako ontzi eta elementu guztiak behar bezala higienizatuta mantenduko dira.

- Alimentar a los gatos de acuerdo a las pautas que se estipulen. Con carácter general, se optará por pienso para gatos y alimento húmedo para gatos (este último siempre a la misma hora y retirando siempre los sobrantes), acompañado de agua fresca. En todo caso se alimentará de forma discreta y rutinaria, sin generar molestias a los vecinos ni residuos y manteniendo todos los recipientes y elementos de la colonia debidamente higienizados.

- Albaitaritzan artatzeko beharra duten katuak harrapatzea, eta zehaztutako prebentzio- eta sendatze-tratamenduez hornitzea, ahal den guztietan zainduz edo koloniara itzuliz.

- Capturar para su atención veterinaria a los individuos que lo requieran y proveer a los gatos de los tratamientos preventivos y curativos que se determinen, manteniéndolos o retornándolos a su colonia siempre que sea posible.

- Beren kabuz baliatzen ez diren katuak harrapatzea edo erreskatatzea, haien onurarik handiena kudeatzeko.

- Capturar o rescatar los gatos que no se valgan por sí mismos para gestionarlos como más les beneficie.

- Katu lagunkoien adopzio arduratsua sustatzea eta kudeatzea.

- Promover y gestionar la adopción responsable de los gatos sociables.

- Udalerrian galdutako eta utzitako katuak hartzea eta, hala badagokio, kudeatzea.

- Acoger y en su caso gestionar la adopción de gatos extraviados y abandonados en el municipio.

- Etxeko animalia galduen eta identifikaziorik gabe hilda agertzen direnen titularra aurkitzen laguntzea.

- Colaborar en localizar al titular de los animales domésticos extraviados y de los que aparezcan muertos sin identificación.

- Herritarrak kontzientziatzeko ekintzak sustatzea HEI metodoaren, konpainia-animalien esterilizazioaren eta

- Promover acciones de concienciación ciudadana para extender la importancia del método CER, la

ESKU59041f3e-d0f9-4125-87e9-5b92b38b3b82

adopzio eta jabetza arduratsuaren, garrantzia zabaltzeko.

● Lanean ari den bitartean akreditazioa (txartela) erabiltzea.

● Jendearen eta beste boluntario batzuen aurrean adeitasunez eta errespetuz jokatzea.

● Agintaritzaren agenteekin lankidetzan aritzea, legea betetzeari dagokionez.

<u>Hizkuntz politika, generoa eta Berdintasuna eta publizitateari buruzkoak</u>:

- Hizkuntza-politika. Jendearekiko harremanetan eta publizitatea egiterakoan euskarari lehentasuna emango zaio. Azken txostena gutxienez euskaraz aurkeztuko da.
- Generoa eta berdintasuna. Jarduerak garatzean, kontutan hartuko da 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena.
- Publizitatea. Beasaingo Udalaren aipamena egingo da kolaboratzaile gisa.

**<u>Hirugarren</u>**. Beasaingo Udalak LAU KATU BEASAIN-i (KATUEN LAGUNEN ELKARTEA), aurreko estipulazioan aipatutako jarduera garatzeagatik, 12.000 €ko dirulaguntza emango dio eta diru hori modu honetan ordainduko da:

1.- Hitzarmena sinatutakoan: 9.000 € (%75).

2.- Hitzarmenaren iraunaldia amaitutakoan eta garatutako jardueraren txostena eta gastuak justifikatutakoan, beste 3.000 € (%25). Horretarako, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

esterilización de animales de compañía y la adopción y tenencia responsables.

● Utilización durante el trabajo de la acreditación (carnet).

● Actitud cordial y respetuosa ante el público y otros voluntarios.

● Colaborar con los agentes de la autoridad en lo relacionado con el cumplimiento de la ley.

<u>En relación a la Política lingüística, género e Igualdad y publicidad:</u>

• Política lingüística. En las relaciones con el público y en la publicidad se dará prioridad al euskera. El informe final se presentará al menos en euskera.

• Género e igualdad. En el desarrollo de las actuaciones se tendrá en cuenta el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo por el que se aprueba el Texto Refundido para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres.
• Publicidad. Se hará mención del Ayuntamiento de Beasain como colaborador.

**<u>Tercero</u>**. El Ayuntamiento de Beasain concederá a LAU KATU BEASAIN (KATUEN LAGUNEN ELKARTEA), por el desarrollo de la actividad mencionada en la estipulación anterior, una subvención de 12.000 € que se abonará de la siguiente manera:

1.- A la firma del convenio 9.000 € (75%).

2.- Una vez finalizado el periodo de vigencia del convenio y justificados los gastos e informe de la actividad desarrollada, otros 3.000 € (25%). Para

ESKU59041f3e-d0f9-4125-87e9-5b92b38b3b82

Beasaingo Udala

ello se deberá presentar la siguiente documentación:

a) Dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzen duen jarduera-memoria, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita.

a) Memoria de actividad justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos.

b) Jardueraren gastu zerrenda sailkatua, hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, ordainketa-data adierazita.

b) Relación clasificada de gastos de la actividad, con indicación del acreedor y documento, importe, fecha de emisión y, en su caso, fecha de pago.

Dirulaguntza ematen duen organoak egokitzat jotzen dituen frogagiriak egiaztatuko ditu, laginketa-tekniken bidez, dirulaguntza behar bezala aplikatu dela egiaztatzeko. Horretarako, hautatutako gastuen egiaztagiriak bidaltzeko eskatu ahal izango dio onuradunari.

El órgano concedente de la subvención comprobará mediante técnicas de muestreo los justificantes que estime oportunos para la correcta aplicación de la subvención. A tal efecto, podrá requerir al beneficiario la remisión de los justificantes de los gastos seleccionados.

c) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo dirulaguntza batzuen xehetasunak, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

c) Detalle de otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada, con indicación de su importe y procedencia.

Dokumentazio hau hitzarmena amaitu eta 20 egun baliodun eko epean aurkeztu beharko da.

Esta documentación deberá presentarse en el plazo de 20 días hábiles desde la finalización del convenio.

**Laugarren**. Hitzarmen honen xede den dirulaguntza bateragarria izan daiteke beste batzuekin, baina dirulaguntzen zenbatekoak, bakarka edo beste batzuekin batera, ezin izango du gainditu diruz lagundutako jardueren kostua; jakin bezain laster jakinarazi beharko da diruz lagundutako jarduerak finantzatzen dituzten beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk eskuratu direla, eta, nolanahi ere, jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu aurretik.

**Cuarto**. La subvención objeto del presente convenio podrá ser compatible con otras, sin que el importe de las mismas, aisladamente o en concurrencia con otras, pueda superar el coste de las actividades subvencionadas, debiendo comunicar, tan pronto como se conozca, la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien las actividades subvencionadas y, en todo caso, con carácter previo a la justificación de la aplicación dada a los fondos percibidos.

**Bosgarrena**. Proiektuaren elkarrizketarako izendatutako pertsonarekin koordinatuko dira Udalaren

**Quinto**. Se coordinará con la persona nombrada para la interlocución del proyecto todas las actuaciones de los

ESKU59041f3e-d0f9-4125-87e9-5b92b38b3b82

zerbitzuen edo enpresen jardun guztiak, baldin eta katuen kudeaketan eragina izan badezakete.

servicios del Ayuntamiento o de las empresas que puedan interferir con la gestión de los gatos.

**Seigarrena**. Kudeaketaren onurei eta kaleko katuen adopzioari buruzko informazio-kanpainak egingo dira, eta oro har indarrean dagoen araudia betetzea sustatuko da.

**Sexto**. Se realizarán campañas informativas tanto sobre los beneficios de la gestión como sobre la adopción de los gatos de la calle y se promoverá el cumplimiento de la normativa vigente en general.

Udalaren webgunean atal bat mantenduko da, katuen kolonien kudeaketa etikoari buruzkoa. Komunikazio arduradunak, Lau Katu Beasain elkartearen laguntzarekin batera, web orrian informazioa elikatuko du.

Se mantendrá un apartado en la página web del ayuntamiento sobre la gestión ética de colonias felinas. El responsable de comunicación, junto con la colaboración de la asociación Lau Katu Beasain, alimentará la información en la página web.

**Zazpigarren**. Hitzarmen honek 2025-12-31ra arte iraungo du, eta ezin izango da luzatu.

**Séptimo**. La duración del presente Convenio será hasta el 31-12-2025, sin posibilidad de prórroga.

**Zortzigarren**. Hitzarmenaren betearazpenaren eta sinatzaileek hartutako konpromisoen jarraipena, zaintza eta kontrola egiteko, eta hitzarmena interpretatzean sor daitezkeen zalantzak argitzeko, batzorde bat sortuko da, kide hauek osatua:

**Octavo**. Para el seguimiento, vigilancia y control de la ejecución del Convenio y de los compromisos adquiridos por las partes firmantes, así como para resolver las dudas que puedan surgir en la interpretación del mismo, se constituirá una Comisión compuesta por los siguientes miembros:

- Udal-erakundearen aldetik, Lurralde Batzordeko zinegotzi arduraduna.

- Por parte de la entidad municipal, el concejal responsable de la Comisión Territorial.

- Lau Katu Beasain-en (katuen lagunen elkartea), aldetik, Elkartearen lehendakaria izango da: Ane Zudaire Fernandez andrea.

- Por parte de “Lau Katu Beasain-asociación de amigos de los gatos”, la Presidenta de la Asociación: Dª Ane Zudaire Fernández.

Jarraipen batzordeak proiektua eguneratzeko eta koordinatzeko, hiru hilean behin bilerak egingo ditu.

La Comisión de Seguimiento se reunirá trimestralmente para actualizar y coordinar el proyecto.

**Bederatzigarren**. Alderdien arteko jakinarazpenak eta komunikazioak.

**Noveno**. Notificaciones y comunicaciones entre las partes.

ESKU59041f3e-d0f9-4125-87e9-5b92b38b3b82

Hitzarmen honen esparruan egiten diren jakinarazpenak eta komunikazioak honako pertsona hauei bidali beharko zaizkie:

- Udalaren aldetik: Lurralde Batzordeko zinegotzi arduraduna.

- Elkartearen Lehendakari andreari.

**Hamargarren**. Beasaingo Udalak berariaz onartzen du hitzarmen honek ez diola Elkarteari eskuordetzen kolonia-katuen ongizatearen azken erantzukizuna, ezta horren ondorioz sortutako erantzukizun juridikoa ere.

**Hamaikagarren**. Hitzarmen honen eta horri lotutako protokoloen bidez, katuen kudeaketan parte hartu ahal izango dute elkarteko boluntario guztiek eta hark baimentzen dituenek, baita udal-langileek, udaltzainek eta Ertzaintzak ere, beren lanak egiten dituzten bitartean.

**Hamabigarren.** Hitzarmen hau bertan behera geratuko da:

1- Epea amaitutakoan.

2- Bi aldeek espresuki horrela adosten dutenean.

3- Alderdiek beren gain hartutako betebeharrak betetzen ez dituztenean.

**Hamahirugarren**. Artikulu honetan xedatutakoaren arabera: Urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikuluaren arabera, hitzarmen honen izaera juridikoa administratiboa da, eta, ondorioz, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa da eskumena duena.

Eta aurreko guztiarekin adostasun frogatzat, bildutakoek hitzarmen hau sinatu

Las notificaciones y comunicaciones que se realicen en el marco del presente Convenio deberán remitirse a las siguientes personas:

- Ayuntamiento: al concejal responsable de la Comisión Territorial.

- A la Presidenta de la Asociación.

**Decimo**. El Ayuntamiento de Beasain reconoce expresamente que este convenio no delega en la Asociación la responsabilidad última del bienestar de los gatos de colonia ni la responsabilidad jurídica que de su existencia derivase

**Undécimo**. Podrán participar en la gestión de los gatos a través de este convenio y los protocolos asociados al mismo todas las personas voluntarias de la asociación y las que ésta autorice, incluidos también los empleados municipales, agentes de la policía municipal y la Ertzaintza durante el desempeño de sus labores.

**Duodécimo**. El presente Convenio quedará resuelto:

1- Al vencimiento del plazo.

2- Cuando así lo acuerden expresamente ambas partes.

3- Incumplimiento de las obligaciones asumidas por las partes.

**Decimotercero**. De conformidad con lo dispuesto en el artículo 47 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, la naturaleza jurídica del presente convenio es administrativa y, en consecuencia, es la jurisdicción contencioso-administrativa la competente.

Y en prueba de conformidad con cuanto antecede, firman los comparecientes el

ESKU59041f3e-d0f9-4125-87e9-5b92b38b3b82

Beasaingo Udala

dute goiburuan adierazitako tokian eta egunean

presente convenio en el lugar y fecha indicados en el encabezamiento.